



TRAMITAZIOAK/ LIZENTZIA ESKABIDEAK

OBRA LIZENTZIARAKO ESKABIDEA, BALKOIAK ALDATU EDO IXTEKO

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

1. OBRA HASI AURRETIK:

Instantzia orokorra behar bezala beteta, honakoak adieraziz:

- Harremanetarako telefonoa.
- Obra zein helbidetan edo partzelatan eta zein industrialdetan egin nahi den adieraztea.
- Bizilagunen Komunitatearen aktaren kopia, balkoiak ixteko baimenaren erabakia jasotzen duena.
- Erabaki hori hartu bada, Xehetasun Azterketa tramitatu beharko da, itxiturak hemendik aurrera izango dituen ezaugarriak zehaztuko dituen.
- Komunitateak xede horretarako Xehetasun Azterketa baldin badu, haren kopia bat aurkeztu beharko da.

Egin nahi diren obren aurrekontu xehekatua.

2. OBRA AMAITU ONDOREN:

Lizentzia ematen den unean, Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko zergaren behin-behineko likidazioa onartuko da. Behin obra amaitu ondoren, faktura guztien kopiak udaletxean aurkeztu beharko dira gehienez ere 15 eguneko epean (bai eta eraikuntza eta eraispeneko hondakinak baimendutako kudeatzaile bati eman zaizkiola egiaztatzen duena ere), zergaren behin betiko likidazioa egiteko, hala badagokio. 15 eguneko epearen barnean dokumentazioa ekarri ezean, Udaltzaingoak obrak ikuskatuko ditu txostena egin eta fakturak eskatzeko.

Obra txikitzat, oro har, hartzen dira eraikinaren egitura-elementuetan eraginik ez dutenak eta eraikinaren erabilera aldatzea ekartzen ez dutenak.